

Ezpalak

JON TORNER

Potato talde gasteiztarrak abenduaren 31n eskainiko du bere azken kontzertua. Aurrez beste hainbat emanaldi eskainiko ditu agur moduan. Abuztuaren 4an, adibidez, Gasteizko Foruen Plazan joko du 23 urteko ibilbide oparoa egin duen banda arabarrak. Kontzertu hori grabatu egingo dute, eta Durangoko Azokan salgai izango den disko-liburuan sartuko dute. Disko-liburu hori argitaratu baino lehen, ordea, hiru kantaz osatutako diskoak kaleratu du. *Gracias y agur* du izena diskoak.

Patxi Zubizarretaren *Urrezko Giltza* (Erein) jatorrizko lana eta Juan Mari Mendizabalaren *Bidaia munduaren amaierara* (Erein) itzulpena sartu dituzte IBBY zerrendan. Zerrenda hori berriki argitaratutako liburuen hautaketa da, kalitate handiko Haur eta Gazte Liburuak biltzen dituena. Zubizarretaren lana idazleen sailean dago, eta Mendizabalena itzultzailean.

Ramon Cascado pintore espainiarrak Zarauzko Sanz enea aretoan jarri ditu ikusgai bere obrak. *Paperaren arima* izeneko erakusketa abuztuaren 26a arte izango da zabalik.

Pedro Aguilera zinemagile donostiarren *La influencia* filmak sari nagusia irabazi du Bruselako L'Age D'Or et Cinèdècouvertes jaialdian. Espainiako Estatuko zinema aretoetan pasa den ostiralean estreinatua zen filmak 5.000 euro jaso ditu. Une gogorak bizi dituen emakumea –Paloma Morales aktoreak betetzen du haren papera– eta bere seme-alabak dira protagonista nagusiak.

Landarbaso abesbatzak bi sari irabazi ditu Kalifornian ospatu den San Luis Obispo nazioarteko lehiaketan. Folklore sailean bigarren postua lortu du eta derrigorrezko obren kategorian berriz, hirugarrena. Errenteriako abesbatzak 21 kontzertu emango ditu aurten.

Ines Irazu musikaren inguruko liburuak saltzen dituen Pentagrama denda ireki du Donostiako Prim kalean. Gipuzkoako hiriburuan ireki den estilo honetako lehen denda da.

Jazza protagonista Donostian eta Zarautzen



Chick Corea, Gary Burton, Madeleine Peyroux, Elvis Costello eta Pedro Iturralde moduko musikariak izango dira Donostiako XVII. Jazzaldian. Uztailearen 24tik 29ra bitartean, kontzertu ugari eskainiko dituzte hainbat aretoetan eta hiriko txoko desberdinetan paratuko dituzten agertokiak. Bestalde, hilaren 23an hasiko da Zarauzko Nazioarteko Jazz Mintegiaren zazpigarren edizioa. Iñaki Salvadorren zuzendaritzapean, teoria eta praktika –parte-hartzaileek kontzertuak eskainiko dituzte kalean– uztartuko dituzte mintegian. Irakasleen artean, Adam Kolker, Ben Monder, David Berkam, Dick Oatts eta Joe Magnarelli musikariak daude. Uztailearen 28an amaituko da jazz mintegia. Informazio gehiago: www.jazzaldia.com eta www.jazzarautz.com.

EHZ jaialdiaren etorkizuna ezbaian

EUSKAL HERRIA ZUZENEAN (EHZ) elkarteak biltzar nagusia egingo du irailaren 8an, 15:00etan, Hazparneko Xuritea ostatuan. Orduan erabakiko dute jaialdia bertan behera utzi ala ez, finantzaketa berriak bilatu behar ote diren, helburu berriak zein diren, festivalaren ereduak aldatzea komeni den edota jaialdia Iduze-Mendiko (Zuberoa) gunean antolatzen jarraitu behar ote duten. Festivala parte hartzaileen esku dagoenez, bilkurara joateko dei egin dute antolatzaileek. Euren hitzetan, “jaialdian parte hartu duten talde eta hornitzaile gehienek prezioa apaltzeko egin duten indarrari esker beteko da aurtengo edizioaren aurrekontua”.

Karlos Linazasorok *Diario Vascon*: «Literatura nazional bat behar ez dugunetik, oro unibertsaldu zaigunetik, malda beharrik pikoagoa dirudi (...) Ez dago irakurlerik. Eta horixe da, argi dago, gure literaturaren ajerik handiena. (...) Guk lanean jarraitzen dugu, baina idazle batek zenbat irakurle izan behar ditu idazle izan dadin? Nahikoak ote ditu laurogeita hamabost bat?».

Blanca Arrieta dantzariak *Berrian*: «Denboraren kontzeptua lantzea gustatzen zait zeren bizitzak denbora bat bizitzera behartzen gaitu. Erotzeko modukoa da hori. Horregatik, jendea nire lan bat ikustera datorrenean, beste mundu batean murgiltzea nahiko nuke,

gorputzak komunika dezakeena sentitzea nahiko nuke».

Lander Garrok bere blogean: «Batzuk urtebete daramate lerrorik idatzi gabe (euren blogetan). Inork ezer esan al die? Inork ohartu al da? (...) ‘Egin behar delako’ gaude hemen, eta ‘egin behar delako’ segitzen dugu hemen, inori pitorik axola ez arren, inork idatzi ez arren, eta, okerragoa dena, inork irakurri ez arren (...) Geure burua modernotzat dugu, aitzindarizat, eta ez gara itsas bazterrean ‘body board’-a egiten dabilzan umeak baino, surfistei inbidiaz begira, noiz-bait gu haiek bezala izango garelakoan. Besteek egiten badute, guk ere».

MIKEL ASURMENDI

Rogelio Botanzen peskizan edota iraganeko oskorriaren menturan

Rogelio Botanz: *Tiempo*, *Rogelio Botanz canta a Alfonso Sastre* eta *Vuelos* (Gaztelupeko Hotsak)

Literaturaren bidea apur bat urratu dugunok musika izan ohi dugu bidaide. Bidaide eta gogaide. Literatura eta musika elkarren ondoan doazen arte espresioak begitantzen zaizkit. 1970ko hamarkadan nerabe ginenok zorte handia izan genuela pentsu dut, garai hartako musika hagitz esanguratsua izan zela, baita berau profitatzeko berealdiko aukera ere izan genuela. Nire belaunaldikoen artean –nirean modu nabarmenean behintzat– literatura tokitan zegoen gure mundutik, baita gure imaginariotik ere. Musika, zentzu eta neurri batean, mundu hurbila nahiz urruna ulertzen lagundu zigun arte espresio bakarra izan zela ausartzen naiz esatera gaur egun.

1975. urte aldean zen. Kanpoko musikariak etortzen hasi ziren gurera. Besteak beste, Rory Gallagher edota Genesis taldea entzun genituen Donostian –Anoetako kontzertuetan patata-tortillaren usaina zein zahatoak zebiltzan airean, eta Zurriolako zerumugan oskorria irudikatzen genuen–. Talde haien letren arrastorik ez genuen usaintzen, noski. Zorionez, Ez dok Amairu fenomenoaren loraldia bizirik zegoen artean: Laboa, Lete, Lertxundi edota Artzeren –eta beste batzuen– musikak eta letrek lagundu ziguten mundua ezagutzen –munduratzeko, hitz batez– edota gure kultura amiñi bat janzen bederen. Oso bizirik ditut orduko pasadizoak, kanpoko eta bertako musiken arteko sinbiosia zegoen nolabait. Euskara oroitzen dut kontzertuetara joaten zirenen ahotan, euskal kulturaren munduarekin eta euskararekin konprometitutako pertsonak begitantzen zaizkit gaur egun.

1980 eta 90 hamarkadetan galdu nuen musikarekiko hartu-eman bizia, nolabait.



2000ko hamarkadan berriz, Rogelio Botanz musikari legaziarrarekin topo egin nuen. Rogelio Tenerifen bizi da duela hogeita hamar bat urte. Soldadutzak eraman zuen Kanariar Uharteetara. ARGIArako elkarrizketatu nuen *Tiempo* diskoaren aitzakian: “Nomada izatea ez da inongoa ez izatea” adierazi zidan Rogeliok. Musikak, musika entzuteak eta musikarekin bizitzeak merezi zuela gogorazi zidan. Rogeliok musika egiteko, ulertzeko eta bizitzeko duen moldeak guztiz bete ninduen, bere musikak eta letrek gatibatuta naukate. *Tiempo* diskoaren ondoren *Rogelio Botanz canta a Alfonso Sastre* kaleratu zuen. Ez ninduen indiferente utzi, ez horixe. Sastre idazlearen –eta etxeko poetaren– bizipenak ezagutu ahal izan ditut, baita orain gutxi zendu den Eva Forestekiko jakin-mina piztu ere, nomadak izaki ere bi hauek. Botanzen azken diskoak *Vuelos* izena du. 1970ko hamarkadan, nerabe izaki, musikari kuttunen biniloa kaleratu orduko gure tokatan zegoen jirabiraka. Denbora ez da alferrik pasa, amigo. Atx! *Vuelos* entzun gabe daukat. Uda honetan eskuratuko dut. Musikak merezi duela pentsatzen baduzu, Rogelio Botanz duzu gomendio.



Artesblai Argitaletxearen azken argitalpena

Yorick Liburudendan edo
www.libreriayorick.com eskura dezakezu

Unamuno, ad altior natus sum
Ozkar Galán

